

Aretxabaleta,
1994eko urtarrilak 27

Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



Loramendi Kultur Elkarteko batzorde eratzzailea

Loramendi kultur elkartea jaio da Atxabaltan

J.A. Loramendi
jaio da

*egin zake
bazkide*

• San Blas eguna

• Sindikatuen
iritziak

• Afizioak:
Paco Hernandez



Izena: Jon Kepa Zubillaga
Ofizioa: Estatuko loteri eta apostu erakunde nazionalako hartzaile mistoa
Afizioa: Bizi eta pentsatzea
Bizioa: Bakarrik egotea
Misioa: Ahalik eta gutxien molestatzea

• **Eguneko momenturik onena?**

Jatordua.

• **Lo egiteko ze arropa?**

Pijama edo pijama barik, bietara, segun ze giro.

• **Emakumeak makilatuta edo barik?**

Ahal den eta gutxien makilatuta.

• **Edari bat gomendatu?**

Ardoa.

• **Janari bat?**

Edozein

• **Musika talde edo kantante gogokoena?**

Neil Young, Javier Krahe eta Imanol.

• **Ze lan egiten duzu etxean?**

Etxean lo eta gutxi.

• **Zuretzat jai onenak?**

Karnabalak

• **Tabernak ixteko ordutegiari ondo deritzozu?**

Galdera hori oso erlatiboa da, ohitura da. Gu ohituta gaude gabeen berandu arte ibiltzen, baina goizago urten ezker, juerga bardin egigo genuke eta etxera goizago joango ginatke.

• **Erretzailea izatea zela ikusten duzu?**

Ni ez naiz erretzailea, baina kea aurpegi-aurpegiara ez badidate botatzen, ez zait inporta. Gainera ohituta nago ke artean ibiltzen.

• **Sekten gainean ze iritzi daukazu?**

Buru gutxiko gauza dela deritzot.

• **Tenporetan sinesten duzu?**

Ez eta bai. Gauza askotan badute zentzua horrelako gauzek baina tenporak izatez ez dira logikoak.

• **Maltzaga-Urbina autopista?**

Mendiko bizikletako pistak apurtzen ez didaten artean...dena dala, gure bailara hau oso estua da kamino haundi bat egiteko

• **Soldadutza, bai ala ez?**

Ez, duda barik

• **Soziedadetan emakumeak, bai ala ez?**

Diferenteak dira, ala?, Zer dute emakumeek desberdina ez egoteko.

• **Edade ideala?**

Norberak daukana momentuan.

• **Telebista, irratia ala egunkaria, zer nahiago?**

Egunkaria

• **Atzerritarrak futboleak zela ikusten dituzu?**

Baloiaren ostean arinetan joaten direnean, normalean onak izaten dira. Ez dut ezer ez kontra, ezta alde ere.

• **Kirolak, zein praktikatu zein ikusi?**

Ikusi denak, praktikatu bakardadean egiten direnak.

• **Futbol talde bat, pelotari bat, traineru bat eta txirrindulari bat.**

Futbol taldea Osasuna, pelotaria Beloki, trainerua bardin dit, beharbada Orio eta txirrindularia Mauricio Fondriest.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi k.e., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigrif, Koop. E.
Tirada: 2.500 ale. Aretxagazeta paper Ekologikoan egiten da.

Gustetan zaizu edurra?



Sabino Mendizabal
(Langabezia)

Bai gustetan zait, baina batez ere mendian egiten duenean. Kalean apur bat egiten badu, ez dit inporta, jendea ondo dabilen bitartean.



M. Jesus Carrillo
(Etxekoandrea)

Bai, eguneroko gauza ez delako gustetan zait.



Joseba Lasagabaster
(Langilea)

Egia esateko ez zait asko gustetan. Edurrak berarekin arazo asko dakar; bai errepidean, bai ibiltzeko... mendian egiten duenean polita da, baina kalean edurra arrisku-tsu bihur daiteke.



Elena Molina
(Langabezia)

Bai jakina, mendian egiten duenean, behar bada, kalean baino gehiago gustetan zait, zeren edurrak lanera eta abar joateko orduan eragozpen asko sortu dezake.

KARTAK

Durana kalean betik zerbait

Ordua zen, norbait konturatu da Durana kalea negargarri dagoela eta konponketa sakon eta azkarra behar duela, ordua zen!.

Bere garaian horrenbeste diru gastatu ondoren, orain kalea horrela edukitzea benetan penagarria da eta are eta gehiago Durana kalean negozioa edo etxea du-

ten bizilagun eta enpresariarentzat. Euria egiten duenean gure kale nagusia inundatu egiten zaizu. Paseatzeko kontuz ibili behar dugu lurrera erortzeko izugarritzeko arriskua dugulako (harri bat bera ere ez dago ondo jarria eta). Eta gainera 1etatik 3'30etara, herri guz-

tietan "Ota" delakoa kentzen badute ere, Atxabaltan eta konkretuki Durana kalean gure municipal jaunak multak jartzen dituzte ordu horietan kotoxeak aparkatzeagatik.

Udalako arduradunok, ez litzateke logikoa goa izango ordu gutzietan multak jartzen bazi- ren edo gutxienez bi ordu térdi horietan ez jartzea,

batez ere konturatu behar dugu hiru restauranten ditugula aipatutako kale horretan.

I.A.



Tamborrada txikia izan genuen urtarrilaren 20an Atxabaltan. Udal Eskolaurreko umeek, irakasleekin batera, herriko plazan goizeko 11etan Sarriegiren kantuak jo zituzten. Et a gurasoen begiak euren seme alabei begira.

Istripu larria

Mendietan edurra ikusten denboratxoa generoan, baina urtarri-laren 17an Atxabalta zuri-zuri agertu zitzai-gun. Kontuak kontu, edurraren zurtasunak ematen duen edertasuna ikusteko aukera izan genuen astelehenean.


Baina edur zuri eta disdiratsu hori, izotzarekin elkartzen denean etsai beldurgarri bihur daiteke eta horren adibidea, Atxabaltako ba-

riantean, urtarrilaren 18an goizean, gertatu zen istripua dugu.

Errepidean zegoen izotzaren ondorioz automobil batek kontrola galdu eta beste automobil baten kontra jo zuen. Istripuan denera bost kottxek elkar jo zuten eta sei pertsonak zauriak izan zituzten. Horrez gain, Arrasateko Aitor Mondragon, 22urteko gaztea, hil egin zen istripuaren ondorioz.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
Diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**



**ANGELINES
Autozerbitzua**
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42



NOVEDADES
FELI
MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALETA


Euskaraz maite zaitut

Arrasateko ERDU-AEK euskaltegian matrikula egiteko epea zabalik dago eta otsailaren 11n bukatuko da. Klaseak, barriz, otsailaren 27an

hasiko dira.

Urtero moduan, eskaintza zabala da eta gainera taldeak sortzen diren lantegietan ere euskalduntze zein alfabetatze ikas-

taroak emango dituzte. Matrikula egin gura duenak, Mondragoeko Garibai etorbidera joan da dila edo bestela 77 03 69 telefonora deitu dezala.



San Blas eguna

Otsailaren 3an San Blas eguna ospatuko da Sailuente ermitan. Urtero moduan, atxabaltar askok igoko dute Apotza-etxe-barriko ermitara.

Ermitara igoko duen jendeak motxilan janari desberdinak eroango dituzte, batez ere egun horretakoak diren San Blas tortak. Ohitura da egun horretan, bertara errotan den janaria bedekatzea.

Astelehenean meza izango da 11etan ermitan, eta bertan jende ugari espero da. Bertaraino joaten dira eta Mojetako, Eskolako eta Almeneko haurrak ere. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, jende asko espero da San Blaseko ermitan.

Egun berean, Eguzki-alde Elkarteak ere bere patrioiaren eguna ospatuko du.

Ospakizuna urtarrilaren 29an hasiko dira Batzar Orokorrekin eta ondoren bazkide guztientzako bazkari izango da. Ondoren otsailaren 5ean jarraipena izango du. Egun honetan, goizeko 11etan Sailuente ermitan mezarekin hasiko dute eguna eta gero beste ekintza batzuen artean luncha izango dute.

• **Egunkariaren Euskal Tonbolako zenbaki saritua 646.153 izan da. Zenbaki saritu hori otsailaren 1a baino lehen agertzen ez bada 510.687 izango da zenbakia. Azken zenbaki hori otsailaren 14a baino lehen azaltzen ez bada, 747.045 izango da irabazlea.**

• **Otsailaren batean igeri ikastaroetan apuntetako epea zabalduko da Kirol-etxean. Ikastaroak hasi berriei eta estiloa hobetzea gura dutenei daude zuzenduta. Informazio gehiagorako Kirol-etxera jo beharko duzue edo 796461 telefonora deitu.**

ARETXABALETAKO BAINU-ETXEAK



Jose M^o Urkia

Bainuetxeei buruzko liburua

Bainuetxeei buruzko liburua dagoeneko kaleratu dago eta gura duzuenok udaletxera jo dezakezue 200 pezeta-ren truke liburua jasotzera.

Aretxabaletako bainuetxei buruzko liburua egiteko ideia Aitor Antxia, Atxabaltako alka-

teak izan zuen. Baina ideia orijinala Jose Mari Urkiak argitaratutako liburu batetik dator. J.M. Urkia Etxabe, Donostiako medikua da eta duela 10 urte Gipuzkoako iturri eta ur medizinaleri buruzko tesi doktora aurkeztu zuen. Tesia aurkeztuta

gero liburuxka txiki bat argitaratu zuen eta Aitor Antxiak liburu hori ezagutzeko aukera izan zuen.

Kontuak kontu, Atxabalta bere garaian bainuetxea izateagatik famatua izan zela ikusita, Urkia jaunarekin hartu emanetan jarri zen alkatea. J.M. Urkiak ez zuen eragozpenik jarri tesi doktora uzteko eta horrela ipini zuen martxan proiektua Aitor Antxiak. Ideiak tesitik jaso, gaurkotu eta egokitu ostean, azken emaitza kaleratu dago. Liburua euskera zein gaztelera idatzita dago, 150 orrialde ditu argazki desberdinez osatua.

Liburuaren aurkezpen ofiziala urtarrilaren 28an egingo da udal-etxean arratsaldeko 7etan. Aurkezpenean Aitor Antxiak gain, J.M. Urkia eta Atxabaltako bainuetxeiko azken jabea, Fernando Arieta Gonzalez-Tablas izango dira.

Ikusi daiteke ATB

Dagoeneko Atxabaltako etxe guztietan ikusi daiteke ATB. ATB kanala hartzeko UHFko 22. kanala konektatu behar duzue.

ATBk astelehenetik eguakotxa bitartean emititzen du eta domeketan ere kirol programa bat du. Programazioari dagokionez, astelehenetik eguakotxa bitartean 8ak, 8'30 eta 9etan berriak ikusteko aukera dugu. Berriez gain astelehenetan 21'30ean Mondrasport kirol saioa eta zinea daukagu. Martizenetan ATBketan eta ostean dokumentala. Eguaztenetan Txandaka eta zinea. Eguenetan Bakarka elkarrizketa saioa eta zinea. Eguakotxetan Astebete saioa eta haurrentako zinea eta domeketan 20'30etan Mondragol kirol saioa.


**MATIKUA
TABERNA**

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABAleta

lezama Merkatal Zentruan

**AITZIBER
NIÑOS**

- Umeentzako moda
- Amagaia



EGUZKIGRAF

**Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak**

Aretxab. Industrialdea F-0-4 • ARETXABAleta
Tfnoa. 943-791844 • Fax 79 29 41



Egoera honetan dago gaur egun Durana kalea

Durana kalea eta Urkuluren egoera aztergai

Durana kalean probak egiten dabilta, konpontzeko ze bide hartu behar duten zehazteko. Orain arte errepidetako materiala zela dagoen berrikusi dute, besteak beste rodamentu kapa, eusteko mortairua eta ormigoi azpiharria. Orain erabakia hartu beharrekoak erabakia hartu dezan itxoin beharko dugu. Dena dala, bitartean Udaleko langileek probak egin ahal izateko zulatuta geratu diren zatietan partxeak ipini dituzte.

Urkulu Harrobia

Atxabaltako Udalak eskatuta, Gipuzkoako Foru aldundiko zuzendaritza orokorraren bi-

sita izan zen Urkulun. Erakunde bi horiek ingurugiroa berreskuratzeko proiektua idatzi zuten.

Proiektu horren helburua puntu bitan datza: batetik hondatuta dauden zonaldeak ingurugiro ikuspuntutik erreabilitatzea gura da eta bestetik zonalde horrek materialen depositu izateko balio dezan aurrerantzean, udalerrian egingo diren azterketak.

Proiektu horrekin; betegarriak diren 201.020 m kubiko eta r a k o , konpaktazio lanak egiten direnerako mendoztiz egonkorra lortu

gura da. Ondoren, bertako espezie egokienak erabakiko dira ingurugiroa errekupeartzeko eta mendoztiz egonkorra definitzeko. Bestetik, Urkuluko regata errekupeartzeko eta garbitzeko lanak martxan jarriko dituzte, lan horiekin beharrez den materiala kenderuko dute eta besteak beste ur-jausi bi indarberriak geldidatezen asmoa dago.

Dena dala, egingo diren lehenengo lanak, zonalde honetan dagoen zaborra kentzea da eta harrobi zaharreko plattformaren azpiegitura prestatzea. Aurrekontua 26 milioi pza baino gehiagokoa izango da.

Menopausiari buruzko topaketak

Otsaileko martizen guztietarako eta martxoko bi edo hiru martitzenetarako, menopausiari buruzko hitzaldia antolatu du Atxabaltako ongizate sailak.

Topaketa horiek 45 eta 52 urte bitarteko emakumeendako daude zuzenduta.

Antolatzaileen asmoa menopausiaren gainean jakin beharrekoak emakumeei jakinaraztea da, baina era berean partehartuko duten emakumeek izan ditzaketen kezka eta zailtasunak argitzea. Taldeak 12 edo 13 pertsonaz osatuak izango dira eta hizlaria Begoña Falces izango da.

Beraz, gaia interesatzen bazaizue eta apuntetako asmoa baduzue M^o Asun komadronegana jo dezakezue; telefonoa: 797458.

Oraingoan menopausiari buruzko topaketak antolatu badi- tuzte ere, aurrerantzean beste gai batzuk lantzeko asmoa dutela jakinarazi digute antolatzailak.

Badatoz aratustekak



laz jantzi zen talde bat da eta ziurrenik aurten ere jantziko dira

Karnabalak badatoz, beraz disfrazak prestatzeko garaian gaude guztiok. Aurtengo karnabalak otsailaren 13an izango dira eta urtero bezala aurten ere disfraz orijinal eta politenek

saria izango dute eta ez nolanhiko sariak gainera. 16 urtetik behe-rakoendako lau sari banatuko dira; lehenengoari 15.000 pzta, bigarrenak 10.000 jasoko du, hirugarrenak 7.000 pzta

eta laugarren onenari 5.000 emango zaio. 16 urtetik gorakoendako, lehenengo saria 35.000 pztakoa izango da, bigarrenak 25.000 pzta jasoko du, hirugarrenari 15.000 pzta tokatuko

zaio eta laugarrenak 10.000 pzta jasoko du.

Egongo den egi-tauari gain begirada bat eman ezkerre: Goizeko 10etan kaleetan zehar txistulariekin diana izango dugu, 12etan Danok-bat txarangaren etorrera, 12etatik ordu 2ak arte kuadrilen desfilea, eguerdiko ordubetetan Loramendi taldeak Txino Dantza eskainiko du. Arratsaldeko 4etan Danok-bat txarangarekin UDAko partidura animatzera. 7etan santageda mutilek dantzatuko dute plazan eta ondoren mozo-rra lehiaketaren sari banaketa egingo da. Eta gabeen Danok-bat txarangarekin dantzaldia.



San Bixente

Urtarrilaren 22an Areantzan San Bixente eguna ospatu zen. Arratsaldeko 5etan Aita Mikelek Meza Santua eman zuen. Zapatua izateak eta eguraldi onak jende asko animatu zuen bertara. Ondoren, Areantzako baserrietako partaideak afaltzeko elkartu ziren Mitarte Garai jatetxean.

San Bixente ermita

Areantza auzoan dago eta bertako kanposantu moduan erabiltzen da. Kanposantuak daukan berezitasuna, elizatik aparte (500 bat metro-ra) egotea da. Herriko auzoetako kanposantuak elizatik gertu daude, Areantzakoa ezik.

Aurten ere bete da esaera zaharra: " San Bixente hotza, neguaren bihotza".

Grebaren aurrean sindikatuen iritziak

- Zeintzuk dira greba deitzera bultzatutako arrazoiak?
- Greba ostean ze aldatuko da gure gizartean?




• Gaur egun krisiaren egoera oso larria da eta erreforma laboralak krisiaren egoera ez du konponduko. Alde batetik erreforma laborala injustoa dela ikusten dugu, pobreak besterik egurtzen ez dituelako eta bestetik ekonamikoki begira krisitik atarateko ez duelako balio behar. Gobernuak ere badaki krisi hau luze doala eta egoera honetan, enpresariak ez dute jende barririk hartuko, lanpostu berririk sortuko. 1984etik hona gertatutakoa errepika daiteke. Lan fijoak, lan prekario-agatik aldatzea. Lan prekario edo ebentuala askoz ere kondizio txarragoan gainera, "Contrato de aprendizaje" horren bidez.

• Ze aldatuko den ez dakigu, guk politikoei eta parlamentuari, demokratik baldin badira eta herriaren gehiengoak greba egiten badu, euren ere euren jarrerak aldatzeko eskatzen diegu. Demokratik izanda egin beharko luketena da eta.

• Hiru ardatz nagusik bultzatzen gaitu greba orokorrera. Batetik gobernuak aurkeztu dituen neurri antisozialak. Bestetik lan harremanetarako marko autonomoaren aldarrikapena eta azkenik berrindustrializatzeko politika egokiaren gauzatzea.

• Greba egingo edo egingo ez balitz, 27aren ostean ez da berdina izango. Espero dugunez, grebak ondo irtetzen badu, hausnarketa sakona egin eta aurrera jarraitzeko posizio hobean egingo gara, gobernuak atzera bota ditzan aurkeztutako neurriak.

Oraindik konbokatuta dago otsailaren 19rako manifestaldi nazionala. Gure asmoetan ez dago geldirik eta isilik egotea.



• Gobernua eta enpresariaren artean elkar ulertze bat dago eta erakunde biek horrenbeste urtetan lortu ditugun helburu eta eskubide sozialak apurtu, kendu gura dituzte, horretarako dagoen sikosian (krisian eta egoera larrian) oinarritzen dira. Beraz guk 27an greba egingo dugu, baina gure greba pertsonala askoz ere gogorragoa izango da bai konbenioetan eta baita beste ekintza sindikaletan ere. Azken finean, gaur egun egin duten diseinu laborala hainbeste urtetan izerdiz eta ekinez lortu ditugun helburuak babes barik uzteko besterik ez du balio behar eta horren aurka goaz.

• Nahiz eta komunikabide eta politikoak gauzak ez direla aldatu behar esan, ziur gaude aldatuko direla, eta kontrari daudenak jakin badakite zeozer dagoela eta horregatik daude hain urduri eta errealtate aurrean itsu. Horrez gain gure helburua, inplikaturik dauden aldeak mahai batean elkartzea da, alde guztiak, behingoz egoera honi behar duen irtenbidea bilatzeko.



Kultur Elkarte barria Atxabaltan

Historia apur bat

Loramendi Ikastola, orain dela 25 urte sortu zen. Ikastola bere historian zehar betidanik euskararen lanean, zentru gune bat izan da. 500 bazkide inguru eta esperientzia luzea. Beste alde batetik Beinke K. E. dauka. 7 urteko lana, euskararen erabilera handitzeko sortutako elkarte, 230 bazkide inguru dituena.

Loramendi Ikastolaren helburua beraz, betidanik hezkuntza euskaraz ematea eta euskara mar txan jartea izan zen. Organikoki eta funtzionalki beste antolakuntza mota bat hartzen duenean, kooperatiba hori planteatzeko da, bidegurutze ho-

rretan zein izan behar den bere aterabidea.

Honi konponbide bat emateko, bi elkarteetako bazkide batzuk batzen hasi ziren. Poliki-poliki ideia desberdinak sortuaz joan ziren, euskalgintzan aurrera indartsuago ekiteko.

Zela sortu da?

Batzar hauetan, elkarte biak konturatu ziren, kalean eta gizarte zerbitzutan hizkuntzak daukan prestijio soziala eta erabilera soziala dela gaur egungo euskalgintzaren lehentasuna beste guztiak alboratu barik. H e z k u n t z a mailan, kooperatibaren helburuak bere fama eta

**" Kultur
Elkarte
barri hau,
Loramendi
ikastola eta
Beinke
K.E.aren
arteko
baturatik
sortu da"**

antolakuntza mota hartuko du, baina beste arlo batzuei ere obatu egin behar zaie. Bertako partaideen esanetara, Beinkek berak nahiz eta zuzenki alor horri heldu izan, ikusten zuten, ikastolaren helburua herri hau euskalduntzea dela kontutan izanda, herri elkarte bezala funtzionatu zezakete la.

Horrela, bi elkarteetako zuzendaritzen onespenerekin Kultur elkarte barri bat sortu da: Kultur Elkarte berri hau, Loramendi Ikastolan eta Beinkeraren K.E.aren arteko baturatik sortu da. Honekin, zabalkuntza handiagoa, eta indar gehiagorekin hasiko dira lanean euskararen erabilera zabalteko asmoz.

Loramendi Kultur

Elkartea aurrera atarateko batzorde barria eratu da, eta momentu honetan, lehen pausoak ematen dabilta. Hau guztia jakin guran, bertako Batzorde Eragileko partaide batekin egon gara berbetan.

loramendi

k u l t u r e l k a r t e a



"Lan egiteko gogo haundia dugu"

• **Elkarte barria sortzeko orduan, zeintzuk izan dira elkarte bi horien pausoak?**

• Bi helburuak antzekoak zirela eta indarra batuz lana hobeto egin zitekeela ikusita, poliki-poliki Ikastolako Kontseilu Errektorearekin elkartzeko hasi ginen eta baita Beinkeko Batzorde eragilearekin ere.

Ordutik zenbait bilera egin ditugu, eta Zuzendaritza Batzorde biek talde horrek zuzendutako planteamentuak onartu zituzten; Elkarte barria egitearena.

Bien artean, osatutako ordezkaritza taldearekin hasierako zuzendaritza batzordea eratzea proposatu zen.

Beraz, momentu hone-

tan Zuzendaritza Batzordea daukagu, Beinke eta Loramendiko partaideek osatutakoa, eta horiek emango diote hasiera Loramendi Kultur Elkarteari.

• **Beharrezkoa zen elkartzea?**

• Kontua da, gauregun euskalduntzean dena dela beharrezkoa eta indarrak batu egin behar direla. Guk jendearekin berba eginda gero ikusi dugu, herri hau euskalduntzerakoan, aurrera pauso haundia izango dela.

• **Zela ikusten duzu hartu duela herriak eta bazkidegoak Elkarte barriaren jaiotza?**

• Beinkeko bazkidegoari begira, bazkide egiteko aukera zabaltzen diogu eta Ikastolakoari ber-

"Guk jendearekin berba egin ondoren ikusi dugu, herri hau euskalduntzeko, aurrera pauso handia izango dela"

din. Horretaz gain, beste guztiek ere aukera izango dute bazkide izateko.

Kontutan euki behar da, Beinkeko bazkidegoa zuzenki pasatuko dela Loramendi K.E.ra. Ikastolako bazkidegoari, barriz, txartel bat bidaliko zaio eta hori bete behar du bazkide egiteko. Kalera begira, edonor egin daiteke.

Guk jendearekin berba egin ondoren, uste dugu guzti honek ilusio berri bat sortu duela eta ideia ontzat hartua izan dela, pauso positibotzat erabat.

• **Ze funtzio beteko du hemendik aurrera Loramendi K.E.ak?**

• Bere funtzio nagusia euskeraren erabilpena izango da eta ahal

izan ezkerorain arteko indarra eta zabalkuntza handitzea espero dugu. Lan egiteko gogo handia dugu eta proiektu barriak hasteko desietan gaude. Gainera beste gauza bari batzuk ere ikusiko dira elkarte horretan.

Elkarte barriak hasieran bost lan talde izango ditu:

TRIL emakume taldea (Emakumeok badugulako zer egin eta non eragin). BERRI-ZAHAR euskaldun berrien taldea. (Euskaldun barriei aukerak zabaltzeko eta euskaldun zaharrak animetako). KULTUR taldea. (Euskarazko kultur eskaintza denon eskura jartzeko). SENTSIBILIZAZIO taldea. (Askoren loalditik Euskara iratzartzeko).

UMEEN taldea. (Gaurkoak biharkoak direlako). ZURE LAGUNTZAZ sortuko direnak. (Baliotsua baita zure hondar aletxoak).

• **Noiz hasiko da bazkide kanpaina?**

• Martizenean auzoketaren prentsaurrekoa egin genuen eta orduan hasi zen bazkide kanpaina.

Gure asmoa, herriko zerbitzu desberdinetan, buzoi bat ipintzea da eta bertara bota beharko dute bazkide izatea gura dutenek bazkide txartela.

Bazkide egiteko, hilean 300 pzt. ordaindu beharko da. Eta ez hori bakarrik, guk kanpaina barri honekin jendea Zuzendaritza

Batzordeko partaide edo lan talderen batean sartzea espero dugu.

Elkartearen helburua ez da bakarrik bazkide asko edukitzea, batez ere jendeak lan talde desberdinetan parte hartzea, horrela Elkartea indartzeko baina.

• **Biltze honetan zer eskaintzen diote Ikastolak eta Beinek Loramendi Kultur Elkarteari?**

• Ikastolak 25 urteko esperientzia eta beterania eskaintzen dio euskalduntze prozesuan. Eta baita bazkideetza sendoa ere. Azkenik nik esango nuke, heldutasuna ematen diola Elkarte barriari.


Beinek elkarteak,

gaztetasuna eta 5 talde desberdin martxan jartzeko ilusioa ematen dio. Beinek momentu honetan 230 bazkide inguru ditu eta gehienak gazteak direla kontutan eduki behar dugu.

Erreportaia hau bukatzeko azkenik esan beharra dago, gauzak garbi uzteko, Beinek desagertu egingo dela. Ikastola kooperatibaren kasuan elkartearen kasuan desegiten biltze honen eraginda. Sare publikoan sartzeko tramitazioetan jarraitzen du, baina desegin bitartean Loramendi Kultur Elkarteak Ikastolako bazkidegoari bertan sartzeko aukera ematen dio.



Aretxagazetan oraingo honetan agertuko den afizioa ez da oso arrunta. Askotan pentsatu izan dugu, karatean indarra behar dela, baina ez da horrela, karatean ez da indarrrik erabiltzen, norberaren kontra burrukan egiten jakin behar da. Horrelako kontuak eta gauzak kontatu dizkigu Paco Hernandezek.



Paco Hernandez, karateka

• **Noiz hasi zinen karatea ikasten?**

• Orain dela 10 urte, hasieran Arrasaten hasi nintzen.

• **Zela hasi zinen?**

• Guk talde bat osatu genuen; "Club karate zan shin". Hasieran federatu egin ginen, baina orain guretako afizioa besterik ez da, ez gara konpetizioetara joaten.

• **Zenbat zarete?**

• Orain 12 lagun gaudu, federatu ginenean gehiago ginen. Baina gure taldera edonor etorri daiteke, baldintza bakarrak 18 urtetik gorakoa izatea eta Kirol-

Etxeko karneta edukitzea da.

• **Zer behar da karate egiteko?**

• Boxeoan erabiltzen den moduko zakua, kimonoa eta babesteko tresnak (espinilerak, eskularruak ...)

• **Zenbat denbora kentzen dizu afizio honek?**

• Ordu t'erdi bat, astelehen, eguazten eta eguakotxetan.

• **Garestia da?**

• Ez, federatuta ez gaudenez, ez dugu ezer ordaindu behar.

• **Karatea filosofia bat da?**

• Bai, arte martzial bat da. Japonen antzinatik defentsarako erabiltzen zen.

• **Zenbat karate mota daude?**

• Zazpi edo zortzi. Guk praktikatzen duguna "Kiono shin kay" da, kontzentrazioa eta indarra nahasten ditugu.

• **Ze ariketa mota egiten duzue?**

• Hasieran berotze ariketak egiten ditugu, ondoren eraso eta defentsarako ariketak. Gero, mugimendu guztiak konbinatzen ditugu perfektzio bila eta azkenik indarra lantzeko arike-

tak egiten ditugu.

• **Zenbat denbora behar da karate teknikak lortzeko?**

• Bizitza osoa. Hila-bete batean ikasi duela pentsatzen duenak, guztiz oker dabil. Denbora luzea behar da kirol hau ikasteko.

• **Zela egiten duzue bakarka ala taldeka?**

• Bakarka egin daiteke baina taldeka indar haundiagoa lortzen da. Askotan bakarrik hasten zara, baina laguntza barik ezin duzu jarraitu, taldearekin, barriz, hori lortu dezakezu.

• **Non praktikatzen duzu karatea?**

• Kirol-Etxeko gimnasioan. Kirol-Etxean obrak egin aurretik, leku hobe geneukan. Orain, barriz, gauza batzuk falta ditugu. Lur biguna adibidez, lurra oso hotza eta gogorra da eta karatea zapatila barik egiten da.

• **Zenbat emakume daude zuen taldean?**

• Hiru. Jendeak pentsatzen du kirol hau gizonezkoendako besterik ez dela, baina ez da horrela, emakumeek berdin berdin egin dezakete, gainera flexibilitate haundiagoa daukate.

*R. Velasco
J. Fuensanta*



AguaGym ikastaroa

Kirol etxean ur gimnasia edo gimnasia akuatikoa izango dugu otsailan. Otsailaren lehen hain siko da Aguagim izenez ezagutzen den uretako gimnasia. Kirol hori egiteko hiru egun izango ditugu astean zehar; martizena, eguena eta zapatua hain zuzen ere.

Martizen eta eguenean lau ordutegi desberdin egongo dira: 12'15tik-12'45ak arte, 4'30etatik-

5ak arte, 5'15atik-5'45ak arte edota 8etatik-8'30ak arte.

Zapatuko ordutegiari dagokionez, beste lau ordu desberdin izango ditugu: 9'15etik-9'45ak arte lehen saioa, 10etatik-10'30ak arte bigarrena, 10'45tik-11'15ak arte hirugarrena eta azken saioa 11'30etatik-12ak arte izango da.

Bazkideek 2000 pzta ordaindu beharko dute eta

bazkide ez direnendako garestiagoa izango da, 4000 pzta. Ikastaro bakoitzean ikasle kopuru mugatua egongo da, 10 pertsona gutxienez eta 15 gehienez.

Esanak esan, apuntetako gogoa duzuenok Kirol-etxera jo beharko duzue. Eta informazio gehiago gura izan ezkeror 796461 telefonora deitu. Hilabete iraungo du ikastaroak.

Dorletako Ama txirrin-dulari eskolak, otsailaren 26an, denboraldi honetako, 94eko, aurkezpen ofiziala egingo du Dorletako Santutegian, txirrin-dularien zaindariaren aurrean hain zuzen ere.

Guztira bost talde aurkeztuko dira. Eta ziurre-

nik nobedaderik ere izango dugu.

Elizako elizkizunak bukatu ondoren, Gure Ametsa jatetxean lunch gozo-gozoa dastatu ahal izango dute partehartzaileek.


Urtarrilaren 16an Mugerza Memoriala izan zen Elgoibarren.

Bertan Keniar eta Etiopiarren artean Atxalbaltako ordezkari bat izan genuen, Ramon Jausoro. Ramonek 21. postuan bukatu zuen.

Futbolari dagokionez, pasatu barri den asteburuan 20. jardunaldia jokatu zen. Udako preferente mailakoek banako berdinketa lortu zuten Mundarrioren kontra. Ora-in 14. postuan ditugu 18 puntu eta 4 negatiboz. Datorren Domekan Roteta taldea izango dute aurrean.

Lehenegorerejal mailakoek ere banako berdinketa lortu zuten Tolosaren aurka. 20. jardunaldia jokatu dutenean Arrietak zuzentzen duen taldea 7. postuan dago 22 puntu eta 4 positiboz. Hurrengo partidua Oiartzunen kontra izango dute. Udako emakumeen taldeak, barriz, ezin izan zuen aurrekoen moduan neurrketari berdindu eta azkenean galdu egin zuen 0 eta 1. Datorren zapatuan Urretxoren kontra jokatuko dute.

Eskoriatzako Bainuetxea



Aretxabaletako Uda lakargi taratu berri duen liburuaren aitzakiaz, hona hemen herritik gertu ezagutu dugun eraikuntza dotore eta aristokratiko bat: Eskoriatzako Bainuetxea. Osobizitza laburra izan zuen bainuetxeak, 1865. urtean ireki zen eta 30 urte eskas iraun zuen.

Bainuetxe honek bost iturritako urak era-

biltzen zituen Bolibarko bi, Esteibarkoa, Torrebaskoa eta Mendiolako metal-ura. Arnasketa eta azaleko gaixotasunetarako gomendatzen ziren batipat.

1879ko abuztuaren 5ean, Alfonso XII Erregearren arreba zen, Pilar de Borbón y Borbón bertan hil zen. Heriotza hau alde batetik eta beste eragin batzuk medio, poliki-poliki gutxituaz joan zen bañisten kopurua.

1894. urtean, aurtan 100 urte betetzen dira, betirako itxi ziren bainuetxeko ateak, eta hurrengo urtean 1895. urtean Marianistek eraikuntzak eta lurrak erosi zituzten.

Azkenik 1974. urtean eta egoera ikusita eraikuntza osoa bota egin zen. Gaur egun geratzen zaigun lekuko bakarrak Esteibarko txabolatxoa eta iturria dira. Ea efemerides hauek

(1894.1994-1895.1995) zerbaitetarako balio duten.

*I. Urreta
A. Antxia*

Aldaketen ikaraz



J.J. Aretxaga

Greba dela eta, lan munduari gadokionez behintzat, aldaketak egin gura dira; hala ere, ez dut uste gauzak larrregi mugituko direnik. Eder-to mugitu zirenak, barriz, Los Angeles (Estatu Batuak) inguruko biztanleak eta etxeak izan ziren, joan zen asteko lurrikararengatik, jakina. Momentu hartan Los Angeles zeuden **Josune Urkia** eta **Nerea Urzelai** atxabaltarrak ere astindu zituen lurrikarak, baina zorionez, euren dako sustoa besterik ez ei zen izan.

Lurrikara ez, baina antzeko mugimendua sortu du Eroskik antolatutako bingo edo lehiaketak. Atxabaltako "andrak" (emakumeak eta gizonak) zoratuta ibili dira automobila irabazteko zerbakiaren atzetik. Zerbaki hori 27a dela esateko eskatu didate, nik ez dut ondoegi ulertzen, baina hor daukazu informazioa.

Zerbakiak dantzan hasi dira. UDAk urtero antolatzen duen zozketan 002 izan da zerbaki

saritua. Txistea samurregi jarri didate eta ez noa ezer esatera, saria nork irabazi duen baino ez: **Peña Zubik**.

Irabazleak aitatu ditugu eta irabazleekin jarraitu behar. Joan zen eguakotxean, Murualde elkarteak urtero antolatzen duen mus txapelketaren finala jokatu zen. Irabazleak **Jose Angel Iturbe** eta **Jose M^o Castellanos** izan ziren. Baina irabazleak izan ez zirenak ere aitatu beharko ditugu, bigarren saria **Manolo Urtubik** eta **Jabier Arandok** jaso zuten.

Aldaketak aitatu ditugu haiseran eta bukaerarako ere aldaketak utzi ditugu. Euskadiko kutzak (Kaja Laboralak) herrian daukan sukurtsala zabalik dago, eta txukun jarri dute, guardia eta guzti.

Mondragoeko Udal Euskaltegian ere aldaketak izan ei dira, azken urteotan zuzendaria **Nati Abasolo** atxabaltarra izan da, baina datorren astetik aurrera arrasatear batek hartuko du zuzendaritzaren ardura. Arrasatearrak espabilatzen hasi ete dira? Egia esanda, ez dut uste.

Eta umea jaio ei da, itxura ederreko umea. **J. A. Loramendi** izena jarri ei diote.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



SARIA: k-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

**Non dago argazkian ageri den
baserria?**

- ▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- ▼ Aurreko zenbakiko erantzuna: Malkorre baserria.
- ▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea **JENNIFER DAVILA. Zorionak.**

Erantzuna:.....
Izen-abizenak:
Helbidea:.....
Tfnoa:.....

1 MARTIZENA

- Arratsaldeko 4,30etan, Udaletxeko ganbaran, Ongizate sailak antolatuta, "menopausiari" buruzko topaketak.

4 EGUAKOTXA

- Santa Ageda Bezipera.

5 ZAPATUA

- Santa Ageda eguna, 1994ko kinttoek etxez-etxe ibiliko dira eskatzen.

- Gaueko 10etan Zarai zineman, Zараia zineman "EL SOL NACIENTE" filmea.

- Arratsaldeko 7etan, ohiturazkoa kintoen dantza.

- Arratsaldeko 4,30retan eta 7retan, Zараia zineman "ESCAPADA AL SUR" filmea.

3 EGUENA

- San Blas eguna.



6 DOMEKA

- Zараia Mendi Taldearen urteera: Urkora.

8 EGUAZTENA

- Arratsaldeko 4,30etan Udaletxeko ganbaran, Ongizate sailak antolatuta "Menopausiari" buruzko topaketak.

ARETXAZOKA

Lana

- ✓ Edozein mota-tako lanak garbira pasatzen ditut ordenagailuan. Interesatuak deitu 797759 telefono zenbakira eta Fernandez galdeu.

- ✓ Irakasle titulatuak klase partikularrak ematen ditu O.H.O.ko 1go mailatik 8. mailara arte. Tfnoa: 77 10 72.

Etxebizitza

- ✓ Etxe bat alokatzen da Atxabaltan, interesatuak deitu 79 29 19 telefonora.

- ✓ Etxebizitza bat alokatzen da. Interesatuak 79 46 25 zenbakira deitu.

- ✓ Pisu bat alokatuko nuke. Interesatuak 71 47 10 zenbakira.

Etxebizitza

- ✓ Pisu bat saltzen da Lausita kalean. 90m2 ditu eta garajea ere. Interesatuak 8etatik aurrera 798671 telefonora deitu.

- ✓ Pisu baten bila nabil Aretxabaletan. Bi edo hiru logela jantzita eukitea gustatuko litzaidake. Interesatuak deitu 79 84 67 telefonora.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

Zure hipoteka zaharrari
ordezkoa heldu zaio.

Hipoteka Berria %9,75ean*



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA